



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urriaren 30ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko irailaren hogeita seian, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen dira Gobernu Batzordeak 2019ko irailaren 26an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- ZESTOAKO UDALA eta PELOTA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Alkateak adierazi du, zenbait urteetan pilota taldeari utzi izan zaiola pilota profesionalen jaialdiak antolatzen eta taberna ustiatzen ere bai. Ekintza hauetan diru poltsa bat osatu dela eta asmoa beti pilota azpiegiturekin loturiko ekimen batera bideratzea izan dela. Hasiera batean Zestoako Herri Eskolan frontoi bat eraikitzeko ekimenera bideratzea pentsatu izan zela gehitu du. Eskolakoek hezkidetzatza proiektu baten daudela eta frontoiaren ekimena ez dutela egokia ikusten adierazi dutela argitu du.

Ondorioz, eta aurreko legegintzaldietan esakini izan den moduan udalari ere eskaini zaio diru poltsa hori. Orain proposatzen den hitzarmena, Zestoako Udala eta Pilota taldearen artean sinatuko da eta helburua Gurutzeaga pilotalekuaren egonkortze eta hobetze lanetara bideratzea izango da. Pilota taldeak Zestoako Udalari helburu honetarako hogeita eta hamabi mila euro emango dizkio.

Ontzat eman da hitzarmena.

3.- ZESTOAKO UDALA eta ELIZAREN ARTEKO HITZARMENA, ENDOIAKO APAIZETXEAREN LAGAPENERAKO

Alkateak adierazi du, urteetan Endoiako elkarte irekita egon izan dela, baina duela hilabete batzuk itxi egin zela. Kontuan izanik elkartean auzoan zerbitzu bat eskaintzen duela, auzotarrak kezkatuta agertu izan direla gehitu du. Elizarekin harremanak izan direla adierazi du, eliza bait eraikinaren jabea.

Proposatzen den hitzarmen honen bidez, Elizak Zestoako Udalari utziko dio apaiz etxearen eraikina. Ondoren, beste hitzarmen bat egin beharko da, Zestoako Udala eta Gaztendoia elkartearen artean auzotarren eraikina elkarte moduan erabili ahal izateko. Horrez gain adierazi du, ondoan dagoen eraikina, lehengo eskola, 2011n udalak elizarekin sinatu zuela hitzarmen baten bidez eta udalari utzita dagoela hogeita urterako, auzotarrek erabiltzeko. Ondorioz, udalak Gaztendoiarekin sinatu beharreko hitzarmenean bi erakinak barneratzea izango dela egokiena adostu da.

Ontzat eman da hitzarmena.

4.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK

- 2019ko urriaren 17an, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko irailaren 5ean, Ingurumena eta Landa Garapeneko Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko urriaren 8an, Gazteria, Kirol eta Jai Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko urriaren 17an, Kultura eta Ondare Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

5.- ALKATEAREN EBAZPENAK

- * 249 zk: Sansineneako Konpentsazio Juntari P. S.A.ri enbargaturiko diru-kopuruaren itzulketa.
- * 250 zk: Agote AG.I.1. Egikaritza Unitateko Birpartzelazio Proiektuaren datu batzuk osatzeko Jabetza Erregistrorako agiria.
- * 251 zk: Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena ematea A. M.A.i.
- * 252 zk: A.A. udal eraikinetako garbitzaileari lan-jardunaldia %100era igarotzea
- * 253 zk: J.E. etxez-etxeko langileari lan-jardunaldia %74ra igarotzea
- * 254 zk: B.T. etxez-etxeko langileari lan-jardunaldia %87ra igarotzea
- * 255 zk: A. M. etxez-etxeko langileari lan-jardunaldia %61era igarotzea
- * 256 zk: M.G.i etxez-etxeko langileari lan-jardunaldia %60ra igarotzea
- * 257 zk: Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena E. N.i.
- * 258 zk: GFKZ bidez datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren inguruko egokitzapen zerbitzuaren esleipena.
- * 259 zk: Dirubiltzaileak proposatutako itzulketak egitea.
- * 260 zk: 2019 hasierako aurrekontu aldaketa.
- * 261 zk: Arkitekto aholkularitzaren kontratazio espediente jarraipenaren jakinarazpena OARC-era eta interesatuei.
- * 262 zk: Arroabeko Olaeta kalean, GI-631 errepidean, autobus geltokia irisgarritasun baldintzetara egokitzeko Foru Aldundiak ezarritako baldintzak betetzeko obrak onartzea.
- * 263 zk: Alkatearen eskumenak Alkateordearengan uztea
- * 264 zk: Iraileko Gizarte Larrialdietarako laguntzen ordainketa
- * 265 zk: Eztiola kalea 4 eta Euskal Herria plaza 2-3an goikaldeko egurra askatzen ari dela eta konpontzeko jasogailua erabiltzeko baimena.
- * 266 zk: H.R. E.i gainbalioari buruzko erantzuna
- * 267 zk: Olaizola eta Uria 1 zk.ko (Granero etxearen) jabeari EIT txostenak aginduriko neurri zuzentzaileak hartzeko errekerimentua
- * 268 zk: Santa Ana 12-13 zk.ko etxebizitzetako jabeai EIT txostena egiteko errekerimentua
- * 269 zk: Lourdes-enea tabernaren titularitate aldaketa egin ahal izateko baldintzak.
- * 270 zk: Lourdes-enea tabernaren kanpoaldean mahaia eta aulkiak jartzeko baimena
- * 271 zk: Arteaga auzunea 16 1.ezkerreko terrazako barandila aldatzeko obretako udal baimena
- * 272 zk: Arteaga auzunea 16 3.eskubiko terrazako barandila aldatzeko obretako udal baimena
- * 273 zk: O.B.k G.C.ko hautsak kotxean sortu dizkion herdoil-pinporten berri ematen du
- * 274 zk: I.I.k G.C.ko hautsak kotxean sortu dizkion herdoil-pinporten berri ematen du
- * 275 zk: U.E.Z.M.k G.C.ko hautsak kotxean sortu dizkion herdoil-pinporten berri ematen du
- * 276 zk: Ostiraletako azokan poltsak eta aterkiak saltzeko baimena
- * 277 zk: Zesareo Diaz Kalea 1 behean futboleko jokatzeko galarazten duen plaka jartzeko eskaera
- * 278 zk: Zestoako Udaleko udaltzainen hainbat proposamen trafikoaren inguruan
- * 279 zk: Artzubia aldeko ibardiaren berreskuratzeko proiektu bategina
- * 280 zk: Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitaten 2018ko kostu efektiboa
- * 281 zk: X.L.k 2019ko hartu gabeko oporrak orduzka hartzeko eskaera
- * 282 zk: Artzubia aldeko ibardiaren berreskuratze eta hobetze lanen irailko kamioi erregistroa
- * 283 zk: Iraetako Amulibi baserriko terrazan konponketa lanak egiteko udal baimena
- * 284 zk: L.Z.S.L.k Telleria poligonoko 2an jarduera martxan jartzeko baimena eskaera
- * 285 zk: Arroabean, 2019ko urriaren 26an, Korrikaña antolatzeke baimena emanaz
- * 286 zk: T.S.A.k igorritako dokumentazioa E. M.S.a.ri bidaltzea
- * 287 zk: 2019ko Aurrekontuaren 2.aldaketa, behin betiko onespina
- * 288 zk: Baratze Parkeko 39 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena
- * 289 zk: Urriko Gizarte Larrialdietarako laguntzen ordainketa
- * 290 zk: Euskara teknikaria "Euskara eta Turismoa: aukerak eta arretaguneak" ikastarora joatea

7.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuak, Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskundeetan, udal langileei dagozkien ordainsariak ordaintzeko agindua.
- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko epaitegiak, M.S.A.k jarritako errekurtsua ezesten duen erabakia igortzen du.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Lurralde antolamenduaren gidalerroen (LAG) behin betiko onespena, etxebizitza kuantifikazioaren fitxa igortzen du.
- Ur Ur Agentziak, Haizenova A.I.E.k eskatuta, Zestoako Arroa Behea auzoan, Sansinenea-Erreka industria sektoreko A-4 partzelan, industria-nabeak eraikitze lanak egiteko baimen-eskaeraren berri ematen du.
- Ur Ur Agentziak, Inversiones Orabe S.L.k eskatuta, Zestoako Arroa Behea auzoan, Sansinenea-Erreka industria sektoreko P.3.3 partzelan, industria-nabe bat eraikitze eta urbanizatzeko lanak egiteko baimena eskatu duela jakinarazten du.
- Ur Ur Agentziak, Joseba Urkizu Agirretxek eskatuta, Zestoako Urola ibaiaren eskuin ertzeko zaintza eremuan eta bertara urak isurtzen dituen erreka baten goi-ibarrean haragitarako, behi-ukuilu bat eta nekazaritza-biltegi bat eraikitze lanak egiteko baimen-eskaeraren berri ematen du.
- Ur Ur Agentziak, Inversiones Orabe S.L.k eskatuta, Zestoako Arroa Behea auzoan, Sansinenea-Erreka industria sektoreko P.3.3 partzelan, industria-nabe bat eraikitze eta urbanizatzeko lanak egiteko baimena ematen du.
- Ur Ur Agentziak, Promociones y Construcciones Enalen S.L.k eskatuta, Zestoako Agote erreka eskuin ertzeko zaintza eremuan, nabe berri bat eraikitze lanak egiteko baimena ematen du.
- Ur Ur Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, Zestoako Otaola erreka ezker ertzean, egonkortasuna bermatzeko larrialdiko lanak eta drainatze sarea hobetzeko lanak egiteko baimena ematen du.
- Ur Ur Agentziak, kanonen ordainketa gutunen prestasuna Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan eta datu pertsonalak babesteko lege oharra.

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko 14:21ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,